LARRAULGO UDALA
(GIPUZKOA)

2011ko APIRILAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2011ko martxoaren 3an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.00 orduetan, Karlos Irazu Muñoa alkate ordearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ALKATE ORDEA: Karlos Irazu Muñoa

ZINEGOTZIAK: Adela Mendiola Gomez
Gotzon Jauregi Sarasola
Igor Barandiaran Perez de Arriluzea

Bere ezin etorria azaltzen du: Xabier Mujika Pagola

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. **Ondoren adierazten den Udalbatzarreko akta onestu, hala badagokio:**
   - **2011ko martxoaren 3an egindako ohiko bilkura**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **2010eko aurrekontuaren likidazioaren berri ematea, hala bada.**
4. **2011 urterako udal langileen egutegiak onartzea, hala bada.**
5. **GMSM Medioambiente, S.A.k eginiko abal itzulketa eskaeraren onespena, hala badagokio.**
6. **Fakturak eta ordainketak.**
7. **Beste batzuk.**
8. **Erregu, galderak eta mozioak.**

.../...

LEHENENGO PUNTUA
ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.

- 2011 urteko martxoaren 3ko Ohiko Udalbatzaren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

06/2011 Alkatetza Ebazpena, martxoaren 11koa, 2010eko aurrekontuaren likidazioa onartzea, ebazten duena.

07/2011 Alkatetza Ebazpena, apirilaren 4koa, Xabier Mujika Pagola Alkateak, Karlos Irazu Muñoa zinegotziari, lehen Alkate orde bezala, 2011ko apirilaren 7an, Alkate moduan dituen ahalmenak eskuordetzan ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA
2010eko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA, HALA BADA

Idazkari-kontuhartzaileak 2011/06 Alkate Dekretuaren berri ematen du, non 2010 ekitaldiko udal aurrekontuaren likidazioa onesten den. Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen direlarik.

06/2011 DEKRETUA

Udal honen 2010ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2010ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2010-12-31n:		82.936,08
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2010-12-31n:		211.848,16
Aurrekontuko zordunak :	165.260,88	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	46.587,28	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2010-12-31n:		261.582,16
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	203.951,29	
Sarreren aurrekontuko hartzekodunak:	0,00	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	57.630,87	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakin gordina (1+2+3):		33.202,08
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Diruzaintzako gerakin likidoa (4-5):		33.202,08
7.- Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintzako gerakina:		0,00
8.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (6-7):		33.202,08
9.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-41.726,47
10.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-3.332,99
11.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		20.607,09
12.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
13.- Aurrekontu emaitza (9+10+11+12):		-24.452,37
14.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		38.036,02
15.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		21.380,83
16.- Kreditu gerakinak, guztira (14+15):		59.416,85

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.

LAUGARREN PUNTUA

2011 URTERAKO UDAL LANGILEEN EGUTEGIAK ONARTZEA, HALA BADA

Idazkari-Kontuhartzaile andreak Larraulgo udal langileen 2011 ekitaldirako egutegiak aurkeztu ditu.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: 2011 urterako Udal langileek aurkezturiko egutegiak onartzea.

BOSTGARREN PUNTUA
GMSM MEDIOAMBIENTE, S.A.k EGINIKO ABAL ITZULKETA ESKAERAREN ONESPENA, HALA BADAGOKIO

Ikusirik GMSM Medioambiente, S.A.k eginiko eskaera, non azaltzen duen 1999 ko maiatzaren 31an 901,52 eurotako (150.000 pezeta) abala jarri zuela "Servicio de recogida domiciliaria de residuos solidos urbanos y de animales pequeños muertos y su traslado a los vertederos correspondientes para Larraulgo Udala" zerbitzua prestatzeko, GMSM Medioambiente S.A.k zerbitzu hau amaitu denez, momentu honetan Tolosaldeko Mankomunitateak eramaten duelako, jarritako abala bueltatzeko eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- GMSM Medioambiente S.A. baltzuari Larraulen 1999 urtean "Servicio de recogida domiciliaria de residuos solidos urbanos y de animales pequeños muertos y su traslado a los vertederos correspondientes para Larraulgo Udala" zerbitzua eskeintzeko jarritako behin betiko bermea (Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastian-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxako 23.1390845.7 zenbakia duen 901,52 eurotako abala, 150.000 pezetakoa) itzultzea.

BIGARRENA.- Interesdunari akordio honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

KIROLZER	126,80
GARAJE EKIN S.L.	108,21
TOLOSALDEA GARATZEN	4.095,00
UROLA TUBOS	109,29
BERRI LANTEGIA S.L.	201,83
IZFE	528,64
ZITU	23,95
FONGUI S.A.	110,25
COMUNIDAD URBELTZ AUZOA	8,57
IBERDROLA	159,64
IBERDROLA	9,86

IBERDROLA	15,09
IBERDROLA	127,81
IBERDROLA	50,65
IBERDROLA	184,75
IBERDROLA	163,32
MOVISTAR	95,24
MOVISTAR	17,49
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	90,05
EUSKALTEL	176,28

Udalbatzarrak **ahobatez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.423,19** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA
BESTE BATZUK

7.1.TOLOSALDEKO LANDA GARAPEN ELKARTEAK, "TOLOMENDIK" IGORRITAKO IDATZIAREN BERRI EMATEA

Ikusirik, Tolomendik, Larraulgo Udalera igorritako idatzia, non ondorengoa dioen:

"*Eusko Jaurlaritzako Landa Garapeneko zuzendariarekin duela gutxi izandako bilera batean, adierazi digu, Eusko Jaurlaritzak Landa Garapeneko proiektuak laguntzeko ateratzen dituen dirulaguntza deialdiei begira, eskualdeetako kudeaketa planetan jarrita dauden proiektuak lehentasuna izango dutela.*

Ondorioz, ezinbestekoa zaigu, aurtengo kudeaketa planean kontutan izan beharreko proiektuak zein diren jakitea.

Horregatik eskatzen dizugu, landa garapeneko dirulaguntzetarako, EREIN eta LEADER bereziki, eta beti ere laguntza heukin bat etorri litezkeen proiektuak izanik, zuen herritik lehentasun gehieneko bizpahiru proiektu gehienez eta bat bereziki azpimarratzea eta guri jakinaraztea ahalik eta epe motzenean.

Aldez aurretik gure zalantza guztiak adieraziz, azpimarratzen diren proiektu guztiak kontutan hartuak izango direnik, behintzat, hori ez dadila aitzakia edo arrazoia izan proiektu bati laguntza ukatzeko.

Beraz, esan bezala, ahal duzuen azkar bidali zuen herriko lehentasun gehieneko proiektuen zerrenda."

Bertaratuak idatziaren berri jasotzen dute.

7.2. LANDAGIPUZKOA 32 DIRULAGUNTZEN BARNEAN LARRAULGO BALIOANITZA ERAIKINARI BURUZ BERRI EMATEA

Ikusirik, Landagipuzkoa 32 dirulaguntzetan, Larraulgo Udalak eskatu zuela eraikin balioanitz bat egiteko dirulaguntza.

Ikusirik, Maite Peñakoba andreak, Foru Aldundiko Landa Garapeneko Teknikariak Udal honi jakitera eman duenez, Landagipuzkoa 32 dirulaguntzetan, 2008 urterako aurrikusita zeuden proiektuak finantziatzeko zegoen diru kopurua, ez zenez proiekturik exekutatu, diru hori Foru Aldundiko Ogasun departamentuak hartu zuela.

Udal honek jakitera izan duenez gaur egun Landa garapen departamentuak ez du dirurik Larraulgo eraikin balioanitza diruz laguntzeko, Landa garapen departamentuak Ogasun departamentuarekin harremanetan dago ea diru kopururik jartzen duen exekutatu gabeko hainbat proiektuentzako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Rafael Uribarren Landa garapeneko diputatuarekin hitzordu bat eskatzea, ahal den azkarren, Larraulgo eraikin balioanitzerako adostutako dirulaguntza jasotzeko.

7.3. PIRAGUISMO IKASTARORAKO IRTEERA

Ikusirik Villabonako Gaztelekuak antolatu duela piraguismo ikastaro bat, aste santuan egiteko, ikastaroa egun bakarrekoa izango da eta Irunen egingo da. Ikastaro hau nerabeei zuzendua izango da. Bere kostua 11euro izango da.

Ikusirik Villabonako Udalak ikastaro hau diruz lagunduko duela, herritako nerabeei 5 euroko diru-laguntza emango dizkielarik ikastaroa egiteko, beraz Villabonako nerabeei 6 euroko kostua suposatuko die ikastaro hau burutzea.

Adela Mendiola zinegotziak batzarkideei, gaia azaldu ondoren, Larraulgo Udalak piraguismo ikastaro hontara joan nahi duten nerabeei diruz laguntzeko prest dauden galdetzen du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Larraulgo nerabeei 5 eurotako diru-laguntza ematea Aste santuan egin behar den piraguismo ikastaroa egiteko.

HAMALAUGARREN PUNTUA
ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK

Adela Mendiola zinegotziak galdetzen du ea taldeak, elkarteak….. kultur etxea erabiltzeko eskaerarik egiten duten, eta ea legez beharrezkoa den.

Arazorik ez egoteko eskaera egon beharko zela erantzuten zaio Mendiola zinegotziari eta bakar batzuk eskaera luzatzen dutela azaltzen zaio.

Beraz, Mendiola zinegotziaren azalpenaren aurrean, batzarkideak Kultur etxearen erabilera arautu dadin proposamena egiten dute.

Ondoren Idazkari andreak batzarkideei jakinarazten die Lanbide-Euskal enplegu zerbitzuak atera dituela 2011urterako dirulaguntzak, hauen bidez kotizaziopeko prestaziorik jasotzen ez duten diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten Euskal Autonomia Erkidegoko langabeak kontratatzeko bultzatzen dituen laguntzen deialdia onartu delarik. Dirulaguntza hau Enplegu eta Gizarte gaietako sailak 2009ko azaroaren 25eko aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoan langabezian dauden eta/edo diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen kontratazioa sustatzeko ezohiko laguntzetarako deialdiaren jarraipena da.

Larraulgo Udalak 2009 urtean argitaratutako diru-laguntza eskaera egin zuen, eta herri langile bat kontratatzeko diru-laguntza onartu zitzaion. Baina diru-laguntzaren ebazpena kontratua egin behar zen egun berean iritsi zen, eta Larraulgo Udalak ezin izan zuen kontrataziorik egin. Enplegu eta Gizarte Gaietako sailarekin egon ondoren, Larraulgo Udalak, momentu honetan atera diren diru-laguntzetan lehentasuna zutela adierazi zitzaion beraz, herri langile bat kontratatzeko diru-laguntza onesturik du Larraulgo Udalak. Honek ez du esan nahi Larraulgo Udalean norbait kontratatzeko beharra balego, diru-laguntza eskaera egin ez dezakeenik, eskaera egiteko epea 2011ko urriaren 31an bukatzen delarik.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 19:50 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

San Esteban Plaza, z/g. 20159 LARRAUL. Tel.: 943 69 30 42 – Fax: 943 69 36 23
web orria: www.larraul.net. E-maila: larraul@udal.gipuzkoa.net